


telebista - irrátia

plano hurbila

♦ Juan Carlos Etxeberria ♦ Teleberri-ren aurkezlea.

«Iritziz zipriztindu gabeko albisteak ematea zaila da»

Albisteak idaztea maite badu ere, patuak albisteak kontatzera bultzatu du. Ez-konduta dago, eta Realaren jarraitzaile amorratu da. Baina, familiari zein kirolari, asteburu gutxi eskaintzen dizkie. Astia duenean Andoaindik Donostira ihes egiten du. Atsegin du hiri horretako kaleetan zehar paseatzea eta lagunekin tabernaz taberna lasai ibiltzea. Abesbatzen musika ikaragarri gustatzen zaio, eta Coppolaren zinemak oraindik harritu egiten duela aitortu digu.



Juan Carlos Etxeberria.

Iñaki Lazkano / Donostia.

■ Zerk bultzatu zintuen kazetari izatera?

Niri idaztea txikitatik gustatu zait. Horregatik egin nuen kazetaritzaren aldeko hautua. Gezurra dirudien arren, gaur egun ere kazetaritza idatzia da gehien erakartzen nauena. Dena den, nik telebistaren esparruan lan egin dut gehien, eta oso eroso sentitzen naiz.

■ ETBko Empresa Vasca saioan eman zenituen lehen pausoak telebista profesionalaren munduan. Nolako izan zen esperientzia hura?

Empresa Vasca saioa sortu

zen ekonomiari buruz hitz egiteko baino gehiago euskal enpresei buruz hitz egiteko. Horrenbestez, bere mugak zintuen. Baina esperientzia polita izan zen. Ni herri telebista batetik nentorren, eta han izugarri ikasi nuen. Empresa Vasca saioak, batik bat, telebista profesionala barrutik ezagutzeko aukera emateaz gain, telebistan irudia zaintzea oso garrantzitsua dela erakutsi zidan.

■ Beraz, gorbata eramateak sinesgarritasun gehiago ematen duela uste al duzu?

Gorbata eramatea ez da sinesgarritasuna lortzeko ezinbesteko gauza. Hori esatea gezurretan aritzea da. Baina, duda izpirik gabe, sinesgarritasuna lortzen laguntzen du. Nik ez nuen sekula gorbata bat jantzi saioan lan egiten hasi nintzen arte. Hasieran gorbata eramate hutsak nazka ematen zidan. Baina orain ez dakit kamera aurrean amerikana eta gorbatarik gabe ateratzera ausartuko nintzatekeen. Batzuek beren ohiko janzkerarekin oso itxura ona ematen dute pantailan.

■ Gero, Madrilgo berriematea ere izan zinen.

Hori aldaketa handia izan zen niretzat. Empresa Vasca astean behin emititzen zen eta lasai lan egiteko aukera ematen zidan. Hortik Madrilen bizitzera eta eguneroko informatibo batentzat lan egitera igarotzea oso gogorra izan zen. Hala ere, lankideek eta euskal irratiak kideek laguntza handia eskaini zidaten.

■ Orain, ordea, asteburuko Teleberri aurkezten duzu. Ohitu al zara zuzenean lan egitera?

Zuzenean lan egiteak bere arriskuak ditu. Jende asko lanean ari da une berean, eta edozeinek huts egiten badu, problemak aurkezlearentzat izaten dira. Azken finean, aurkezleak jartzen baitu aurpegia. Zuzenean lan egiteak, ostera, bere abantailak ere baditu. Albisteak berehalakoan eman baitaitezke.

■ Albistegietan iritzia eta informazioa nahasteko joera nagusituz doa. Zer pentsatzen duzu horri buruz?

Hor dago asuntorearen gako. Ni iritzi kutsurik gabeko albisteak ematen saiatzen naiz. Eta, hala ere, askotan iritzia gorde ezinean nabilela ohartzen naiz. Adjetibo bat ipintzerakoan ere arazoak sortzen zaizkit. Nire ustez, jendeari informazioa hutsean eskaini behar zaio, konklusioak bere kabuz atera ditzan. Informazioa zenbat eta hutsagoa, orduan eta hobeto. Baina hori lortzea oso zaila dela jabetzen naiz. x

t . x . o . r . i . t . x . o . a . r . i . m . o . k . o . k . a

Protagonistak

joan den larunbat gauean hasi zen, eta eztabaiden formulara egokitzen da.

Hasieran pentsatu nuen beste eztabaida saio bat besterik ez zela izango. Eta, egia esan, hala da, beste eztabaida saio bat baita; beste bat... baina Xabier Sardarena. Hiru gai jorrratu zituzten larunbat gauean. Alde batean, besteak beste, Bienvenida Perez eta Karina Falagan eseri ziren; falagan PP alderdikoa egin zen bere negozioak babesteko, baina alderdiko kideek mugak jarri zizkiotenean, berraz, alderdikoa eman zion Manuel Fragari prentsaren eta argazkilarien aurrean. Beraz, imajina dezakezue zer-nolako jarrera erakutsi zuten bi emakume eskuindar horiek. Aurrean, berriz, Antxon Reixa, Daniel Mugica eta Carlos Tena ikusi nituen, beste batzuen artean. Urrundik ikusi nuen ikusi beharrekoa, egia esan.

Hiru gai aztertu zituzten batzuen eta besteen artean, esan dudana bezala: Macarena abestiaren ohi kanpo-

ko arrakasta, prostituzioaren erabilera eta politikoa izatea pagotxa ote den inguruko kontua. Beti bezala, lehenik mikrofonoa kanpora, barrura eta gainerako tokietara mugiarazi zuten, eta gero platoko gonbidatuen iritzia eskatu. Ikus dezakezue, formulak ez du inolako sekreturik, baina aurkezleen eta gonbidatuen presentziak jantzen ohi da beti programa bat. Gonbidatuak ez ziren izan, gutxienez, katez kate dantzan dabilzan betikoak. Carlos Tena izan ezik, orain astero A3n baitabil Bertin Osborne- ren ondoan, gainontzekoek ez dute aurpegia han eta hemen doan nolana nahi erakusten.

Hala ere, behin berriro ikusi behar dugu saioa, badaezpada, jakiteko bisita nortzuek egingo duten berriro; hau da, azaldu zirenen artean, ea nortzuek izango duten aurki tertulianoaren lanpostu iraunkorra. Arrautzak onak badira, tortilla ona egin daiteke bederen.

Ines Intxausti

horoskopoa

A R I E S
martxoak 21 - apirilak 20
Hotza, hotzikarak... Gaixorik? Ez, zu ez zaude gaixorik, maiteminduta baizik.

T A U R U S
apirilak 21 - maiatzak 20
Besterik ez bada ere, tipula jan. Aholko kirats hori baino hobea izango da.

G E M I N I
maiatzak 21 - ekainak 20
Zure bizilekuan beharrezkoak dira bi. Zuk egun osoan behar duzu bat.

C A N C E R
ekainak 21 - uztailak 20
Maitasunean zorterik ez. Jokoa zorterik ez. Eta, gainera, osasunez ere ondoezik.

L E O
uztailak 21 - abuztuak 23
Gaur gauza bat eta bihar beste bat. Iritzi bakarrek gizakia ezin zaitezke izan!

V I R G O
abuztuak 24 - irailak 23
Erretzailak ez dira zigarroa dutenak solik. Zigarro bako erretzailerik ere bada.

L I B R A
irailak 24 - urriak 23
Berdea da zure kolorea, itxaropenarena. Hori ez galdu; izan ere, garai onak datoz.

S C O R P I U S
urriak 24 - azaroak 23
Maitaleen artean aukeraketa egiteko garaia da. Dona-donarekin beharbada.

S A G I T T A R I U S
azaroak 24 - abenduak 23
Bilatuz gero aurkituko duzu. Beraz ekin bilaketa lanari.

C A P R I C O R N U S
abenduak 24 - urtarrilak 20
Sasoian egoteko kirola egin behar da, eta koipeari ezetz esan behar zaio.

A Q U A R I U S
urtarrilak 21 - otsailak 18
Zapatila ederrak erosi bai, baina zenbat kilometro egingo dituzu oinez?

P I S C I S
otsailak 19 - martxoak 20
Zergatik hain triste? Laster urtemuga duzu, beraz animo! Opariak ugari izango dira.

Uxue Agirre

Duela 60 urte
(Otsailak 18, 1937)

Frankisten konboi baten erorketa

Eguraldi txarrak artilleria sua isilarazi zuen. Indar leialen eta frankisten posizioak behelanoak hartu zituen eta egun osoan tiro gurutzaketa bakan batzuk baino ez ziren jazo. Eibar aldean, ordea, indar leialek frankisten konboi bati eraso zitoten. Frankistek, lanbroak eskaintzen zien babesa baliatuz, euren posizioak armaz eta elikagaiz hornitzeko ezezik, lubakiak soldadu gehiagor sendotzeko asmoa ere bazuten. Hala, matxinatuek konboi bat Eibarko posizioetara bidali zuten. Baina indar leialek frankisten konboi hori ezustean harrapatu eta Akondia ingurutik metrailladore suaz zigortu zuten. Galera izugarriak izan ziren.

IZEN-ABIZENAK dituen protagonista jakin baten gainean jartzen dute programa batzuek beren pisu eta inflexio gune guztia. Programa gehienek, esango nuke. Horregatik, telebista kateek izenak erosten dituzte gehiago saioak edo ideiak baino. Euskal Telebistako *El tiempo lo dirá* da horren adibide, ez baitu inolako ideia berri eta argirik. *El tiempo lo dirá* Antxon Urrusolo da; Antxon Urrusolo bera eta berak pertsonifikatzen duen *autoshow*-a, hain zuzen.

Beste horrenbeste esan genezake hainbat saiari buruz. Ana Garcia Lozanoren programak, esaterako, Ana izenburu soil eta indentifikagarria dauka; ezin bestela izan, bera gabe. Guztiz bestelakoa litzateke. Gauza bera gertatzen zaie Nieves Herrero eta Isabel Gemiok zuzendutako saioei, beraiek erakartzen baitute pertsonalki audientzia baten saioetara. Horrexegatik utzi dizkio orain atearak zabal-zabalik Tele 5 kateak Xabier Sarda kazetariari, hark saio bat aurkeztea erabaki zuenetik. *Moros y cristianos* deitzen da programa hori,